Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

ERABAKIA, 2018ko MAIATZAREN 15ekoa, UPV/EHUko GERENTEARENA, UPV/EHUko LANGILEEN ITZARRIRAKO EKARPENAK BERRIZ EGITEN HASTEKOA

GERTAKARIAK

Lehenengoa. Euskal Autonomia Erkidegoko 2018. Urteko Aurrekontu Orokorrak Onartzeko Legeak (5/2017 Legea, abenduaren 22koa) 19. artikuluan honela dio pentsio planetarako eta aseguru kolektiboko kontratuetarako ekarpenen inguruan:

16. Aurreko paragrafoetan jasotako lansari-gehikuntza orokorraz gainera, 2018ko ekitaldian zehar, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateek beren esparruko langileentzako enpleguko pentsio-planetarako ekarpenak edo erretiro-kontingentzia estaltzeko aseguru-kontratu kolektiboak egin ahal izango dituzte, gehienez ere, ekitaldi osoko pertsonal-gastuetarako daukaten zuzkiduraren % 0,5eko mugarekin. Ehuneko hori ekitaldian zehar handitzea erabaki ahal izango du Gobernu Kontseiluak, % 1eraino gehienez ere, Ogasun eta Ekonomia Sailak eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak proposatuta.

Bigarrena. UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak UPV/EHUren 2018rako aurrekontua onartu zituen 2018ko martxoaren 22an. Aurrekontuetan jasotzen da % 0,5eko ekarpena egitea 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Gerenteari dagokio gai hau ebaztea, aintzat harturik UPV/EHUko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakiaren bigarren puntuaren 7. atala.

Horregatik guztiagatik,

ERABAKI DUT

Lehenengoa. Agintzea berriz ere hasteko % 0´5eko ekarpenak egiten Itzarrirako, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez.

Bigarrena. Jakinaraztea erabaki hau Nominen, AZPkoen eta IRIen zerbitzuei.

Errektoreak emandako eskumenak erabilita, 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakia dela bide.

(2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteche

UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
REGISTRO DE RESOLUCIONES ERABAKIEN ERREGISTROA
Resol. nº 2126/2018 Erabaki Zk

Nik, Pedro María Hondo Bengoetxea UPV/EHU-ko Idazkari nagusiak, certifica que el presente documento es copia fiel del original. Bilbao, 2018ko ..... de ..... Leioa, 2018ko ..... de ..... SECRETARIO GENERAL